NAHIKO

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# LEHEN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

# 6. UNITATE DIDAKTIKOA: BESTE PERTSONAK, BERDINTASUNEZ ELKARREKIN BIZI

# GAI ZERRENDA



**HEZKIDETZA**

**- Irakaslearen gida**

**MATERIALA**

**- “Gau bat aterpetxean” ipuina**

**- “Gakoa” jolasa**

**- Ikasleen koadernoa**

**- Familien koadernoa**

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# HEZKIDETZA, BERDINTASUNERAKO HEZIKETA

**Ikasle oro, neska nahiz mutil, generoko rolik gabe: bizitzaren arlo guztietan pertsona osoak eta autonomoak.**

**Giza Eskubideetan oinarritutako harremanak.**



## BERDINTASUNA:

- **Ikasle guztiek, neskek zein mutilek, norbere autonomia, pertsonen arteko tratu onak eta erabateko hiritartasuna lortzeko heziketa eduki dezaten.**
- **Errespetuz eta indarkeriarik gabe hazi, sentitu, ekin, ikasi, erabaki eta elkarbizi daitezen.**

→ **Nahiz arlo pribatuan nahiz publikoan Giza Eskubideak errespetatuz bizi eta elkarbizi daitezen.**

→ **Arazoak eta auziak biolentzia-eza erabiliz konpondu ditzaten.**

→ **Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten.**

# LEHEN HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLOA

## NAHIKO! 1-2 Logoa

**Desberdintasunaren semaforo gorriak sexuaren arabera.**

**Berdintasunaren semaforo berdeak denontzat.**

**HELBURUA: semaforo berde guztiak guztiontzat, semaforo gorririk gabe.**



## NIK AHAL DUT:

- Nire gorputza ezagutu, maitatu eta garatu.
- Emozio berriak eta enpatia sentitu. Emozio guztiak sentitu, kudeatu eta partekatu.
- Lehen egiten ez nituen gauza asko egin. Jakin-mina izan. Esperimentatu. Ikasi.
- Etxeko girotik atera. Harreman berriak egin. Helduen ereduak imitatu ala eredua berritu.
- Arreta, umorea, memoria, arrazonamendua eta abar garatu. Aukeratu, erabakiak hartu.
- Elkarbizitzako arauak eta balioak ikasi eta erabili. Lagunartekoa eta gizartea eraiki.



# LEHEN HEZKUNTZAKO
# 2. MAILA

| UNITATEAK | JOLASAK | IPUINAK |
|---|---|---|
| 4. Mugak gainditu, ikastea | Bizitza biderkatzeko taula | Trebe eta Tximista |
| 5. Borondatea. Aukeratu, berdintasunez planak egitea | Zerrenda | Buru eta Sorgin |
| 6. Beste pertsonak, elkarbizitza | Gakoa | Gau bat aterpetxean |

## 6.UD, ELKARBIZITZA, BIZIKIDETZA



**Bai neskei eta bai mutilei, generoko ereduak eta rolak saihestuz, berdintasunez eta errespetuz bizikidetzarako heziketa eta tresnak eskaini.**

**Sexu-mugarik gabe elkarbizitzarako gaitasun pertsonal guztiak garatu.**

**Bizikidetzarako trebezia, aukera, tratu eta ardura berdintasuna!**

**“NIK BERDINTASUNEZKO BIZIKIDETZA ERAIKI ETA GOZATU AHAL DUT!”**

# IRAKASLEEN FORMAKUNTZA

## IRAKASLEAREN GIDA

1. Bizikidetza: ni beste pertsonekin elkarbizi naiteke; zu, neska, beste pertsonekin elkarbizi zaitezke; zu, mutil, beste pertsonekin elkarbizi zaitezke… ala ez?
2. Helburua: aukera berdintasuna; gu, neskak eta mutilak, berdintasunez elkarbizi gara; haiek, neskak eta mutilak, berdintasunez elkarbizi dira.
3. Unitateko materialak eta ekintzak.
4. “Gau bat aterpetxean” ipuina.
5. “Gakoa” mahai jolasa. (Elkarbizitzaren gakoak)



BIZIKIDETZA, BERDINTASUNEZ ELKARREKIN BIZI

6 UNITATE DIDAKTIKOA

IRAKASLEAREN GIDA 16

1 BIZIKIDETZA: NI BESTE PERTSONEKIN ELKARBIZI NAITEKE, ZU, NESKA, BESTE PERTSONEKIN ELKARBIZI ZAITEZKE, ZU MUTIL, BESTE PERTSONEKIN ELKARBIZI ZAITEZKE... ALA EZ?

Gure ikasle neskak eta ikasle mutilak gero eta jende gehiagorekin harremanak izateko prozesuan daude. Elkarbizitzarako ahalmena gero eta garatuago dute. Euren harreman mundua gero eta zabalagoa den neurrian, elkarbizitzaren gorabeherak, poztasunak, zailtasunak, gatazkak eta abar gero eta gehiago bizi dituzte. Gero eta pertsona anitzagoekin nola elkarbizi ikasi beharrean aurkitzen dira. Elkarbizitzaren muina eta arauak gero eta hobeto ezagutu eta erabiltzeko gai dira. Harreman horietan sexuaren araberako portaera ezberdinez ere gero eta hobeto jabetzen dira.

Aurreko unitateetan bezala, gakoa, ikasle neskek eta ikasle mutilek beren harreman eta elkarbizitzan aukera, eskubide, tresna eta betebehar berdinez eraikitzen duten ala ez jakitean datza. Hots, nesken "beste pertsonekin bizi naiz" hori mutilen "beste pertsonekin bizi naiz" horren parekoa den ala ezberdinak diren eta, horrela balitz, zergatik diren ezberdinak. Hau da, nesken "elkarbizitza" horrek mutilenak bezalakoa den ala ez, hau da, esparru beretan, aukera berekin eta gizartearen itxaropen berarekin ematen den ala ez.

# BEHAKETA:
# ZEIN EKARPEN EGITEN DUTE BIZIKIDETZAN?



**"BIZIKIDE NAIZ": NESKAK ETA MUTILAK BERDIN?**

**- Eskubide, aukera eta baldintza berberekin?**

**- Trebezi, ardura eta jokabide berberekin?**

**- Gizartearen itxaropen, onarpen eta balio eman berberekin?**

## GURE GIZARTEAN

**→ Orokorrean, neskek eta mutilek ez dituzte bizikidetzarako gaitasun berdinak garatzen, ezta ere ardura berdinak hartzen.**

**→ Orokorrean, neska eta mutilentzat bizikidetzarako gaitasun "normal eta natural" ezberdinak bereizten ditugu, bizikidetzarako jarrera eta portaera ezberdinak.**

**→ Helburua: Neska eta mutilengan bizikidetzarako ardura eta trebezi berberak garatzea.**

**→ Semaforo gorriak (debetuak) identifikatu eta itzali. Semaforo berdeak (baimenak) identifikatu eta guztientzat piztu.**

# MITOA: "NESKA ISILAK ETA MUTIL DISRUPTIBOAK"





## GENERO ESTEREOTIPOEN MUGAK GURE GIZARTEAN

**"NESKAK ENTZULE ONAK DIRA"**

**"MUTILEK EZ DUTE BERE TXANDA ITXOITEKO PAZIENTZIARIK"**

**"NESKAK ERRAZAGO MOLDATZEN DIRA..."**

→ **Neskentzat gaitasun "naturalak eta normalak": partekatu, lagundu, entzun, antolatu, arduratu, zaindu...**

→ **Mutilentzat gaitasun "naturalak eta normalak": hitz egin, erabaki, trukatu, gozatu, agindu, jolastu...**

# HELBURUA: ELKARBIZITZARAKO TREBEZI ETA ARDURA BERBERAK







## NESKAK ETA MUTILAK SEXU-MUGARIK ETA BEREIZKETARIK GABE ELKARREKIN BIZI

- Aukera eta erantzunkizun berberak.
- Arlo eta egoera berberak.
- Elkarbizitza mota eta elkarrizketa berberak.

→ Bizitzaren arlo guztietan genero estereotiporik gabe elkarrekin bizitzea.

→ Pertsona bakoitzaren gaitasun arabera bizikidetzarako trebatu eta arduratzea, ez “nesken” eta “mutilen” ereduen arabera.

→ Elkarrekin berdintasunez eta errespetuz bizitzen ikasi. Berdintasunez elkarrekin bizi.

# HELBURUA: SEMAFORO BERDEAK GUZTIONTZAT



- Neska eta mutilentzat semaforo berde berberak. Ez daude soilik neskek edo soilik mutilik garatu ditzaketen bizikidetzarako trebezi, ardura eta portaerak.

- Semaforo gorriak identifikatu eta itzali: mutilek elkarbizitzan "eduki ezin dituzten" / "eduki ohi ez dituzten" jarraibideak eta neskek "eduki ezin dituzten" / "eduki ohi ez dituzten" portaerak.

- Semaforo berdeak identifikatu eta guztientzat piztu: neskek eta mutilek trebezi, ardura eta portaera berdinak garatu ditzakete.



**Ezberdintasunak norbanakoak dira ez sexuaren araberakoak.**

**Berdintasunez elkarbizitzen ikasi: neska eta mutil bakoitzaren jarrera eta portaera baloratu eta onartu sexua kontuan hartu gabe.**

# HIRUHILEKOAREN ANTOLAKETA



**Unitate didaktikoaren materiala hiruhilekoan zehar erabili**

## PAUSOAK:

→ **Asteroko saioetan ikasleekin:**

- "Gau bat aterpetxean" ipuina landu.
- "Gakoa" jolasa ezagutu, landu eta jolastu.
- Ikasleen koadernoa bete, ipuina eta jolasa barneratzeko. Zatika egiten joan daiteke.

→ **Eskolan landu ondoren:**

- Familien koadernoa etxera bidali etxekoekin landu, hausnartu eta partekatzeko. Zatika egiten joan daiteke.
- Ez da "etxeko-lana", ez da eskolan "zuzenduko". Erabileraren eta etxean lortutako giroaren jarraipena egingo da.

# "BERDINLAND"





## BAZEN BEHIN...

- Emakume eta gizonen berdintasunaren ikuspegitik eredu positibo eta anitzak.
- Gure gizartean ohiko egoera eta pertsonai estereotipatuen alternatiba berdinzaleak.
- Ikasleen adineko neska-mutil lagun taldea eta beraien eguneroko bizipenak.
- Ipuin bakoitzean kanta bat eta taldeko neska eta mutil baten protagonismoa eta lidergoa.

# "GAU BAT ATERPETXEAN' IPUINA





## BIZIKIDETZARAKO ESTRATEGIAK ETA TREBEZIAK

- → Interes, gustu eta gogo ezberdinek edota ezusteek bizikidetzarako "arazoak", egoera zail eta gatazkatsuak sortzen dituzte.
- → Neska-mutilek elkarbizitzarako hainbat estrategia eta trebetasun erakusten dituzte. Gure gizartean beren sexurako ohizkoak jotzen ez diren gaitasunak: bere nahian azaldu, entzun, eskatu, enpatizatu, txandatu, besteen gustuak errespetatu, elkarbanatu…
- → Bakoitzak elkarbizitzan aktiboki parte hartzen du eta besteen parte hartzea eta ekarpenak esplizituki baloratu eta errespetatzen ditu.

# IPUINA LANDU



Egunerokotasunarekin lotu.
Hausnartu, eztabaidatu.
Ipuina jarraitu, aldatu…

## JARDUERAK

- Ipuina ikusi eta entzun (bideo-ipuina) edota irudiak eta testuak ikusi eta irakurri (pdf artxiboa).
- Zer gustatu, zer ez, zerk harritu…? Zergatik?
- Gure gelan, gure herrian, horrelako neskak daude? Zergatik? Nolakoak dira? Eta mutilak? Zergatik? Nolakoak dira?
- Zergatik jokatzen du horrela pertsonaiak? Neska delako? Mutila delako? Bere ogibidearengatik? Bere nortasunarengatik?
- Zer nahiko genuke ikasi, entrenatu, trebatu? Zergatik? Ahal dugu egin? Zergatik?

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# ONLINE JOLASAK




## JOLASTU, BIZIARAZI, AZTERTU, HAUSNARTU

- Lan-talderako materialak.
- Egoerak, sentsazioak, bizipenak, sentipenak, harremanak... biziarazi eta gogoratu.
- Galdetu, aztertu, hausnartu, ulertu, eztabaidatu, adostu, iradoki, aldatu...
- Ondorioak, alternatibak, aldaketak...

**JOLAS BAKOITZAK HIRU ATAL**

- Hasierako tutoriala (azalpena)
- JOLASA
- Bukaerako laburpena (hausnarketa)

# HASIERAKO TUTORIALA




## ERABILERA

- Jolasa ezagutzeko.
- Non dago tutoriala?
  - Lehenengo zikloko jolasetan (LH1 eta LH2) irakasleari alta ematerakoan azaltzen da.
  - LH3tik aurrera berriz, ikasle bezala alta ematerakoan azaltzen da.
- Lehen partidetan talde osoarekin erabil daiteke eta, gero, taldeka edo banaka.
- Tutoriala saltatzeko aukera dago botoi gorriari emanez. Adibidez, jolastu den lehen partidetan jadanik tutoriala egin bada eta jolasa jadanik ondo ezagutzen denean, ez da beharrezkoa berriro egitea.

# BUKAERAKO LABURPENA




## ERABILERA

- Partidaren emaitzak aztertzeko eta kontzeptuak finkatzeko.
- Non dago laburpena?
- Jokalari bakoitzari azaltzen zaio partida amaitzerakoan.
- Lehen partidetan talde osoarekin erabil daiteke eta, gero, taldeka edo banaka.
- Laburpeneko galdera batzuk jolastutako partidaren araberakoak dira.

# ONLINE JOLASEKIN JARDUERAK




## 1.- JOLASTU AURRETIK, JOLASA EZAGUTU:

- Kartak eta fitxak ezagutu, marrazkien eta hitzen esanahia argitu…
- Irizpide anitzak erabiliz fitxak antolatu eta sailkatu. Pertsonaien ezaugarri komunak edota ezberdinak identifikatu.
- Kartak kopiatu eta hormairudiak egin elkarren artean erlazionatuz, osatzen dituzten testu edo irudiak gehituz. Egungo albisteekin edota gertaerekin erlazionatu.
- Nork bere burua edota beste pertsonak errespetuz ezagutu eta deskribatzeko hitzen zerrenda osatu. Erabiltzen al ditugu hitz batzuk neskentzat eta beste batzuk mutilentzat? Zergatik?
- Hitz berrien hiztegi txikia egin. Hiztegia irudi, adibide, egoera edo esaldiekin lotu…
- Karta edota fitxa berriak sortu.

## 2.- JOLASTU ONDOREN, HAUSNARTU:

- Egindakoa aztertu, zalantzak argitu…
- Jolas amaierako online laburpena bete.
- Ezkerreko laukiko ariketak egin.
- Ikasleen koadernoko ariketak egin.

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# "GAKOA" JOLASA

## 36 IRUDI/EGOERA

- **NAHIKO! Lehen Hezkuntzako 1-2 programaren sei unitateen ipuinetan azaldu diren irudiak.**

  **Berdinland herriko ikasle taldearen elkarbizitzaren hainbat egoera jasotzen dituztenak.**

## 36 HITZ, 36 GAKO

- **Elkarbizitzarako beharrezkoak eta onuragarriak diren gaitasunak, trebeziak, portaerak, ardurak, ekintzak…**

  **Irudien bizikidetza egoerekin erlazionatuta daude.**



# ELKARBIZITZAREN GAKOAK





Entzun
Ados jarri
Erabaki
Iritzia eman
Proposatu
Parte hartu
Laguntza eman
Irribarre egin
Gozatu
Lan egin
Jolastu
Itxaron
Koordinatu
Eskaini
Garbitu
Elkarrekin lan egin
Zailtasunak gainditu
Desberdintasunak onartu
Nire ideiak defendatu
Pertsona guztiak errespetatu
Arauak errespetatu

Hitz egin
Eztabaidatu
Aukeratu
Botoa eman
Elkartrukatu
Agurtu
Egon
Txantxetan aritu
Lagundu
Egin
Partekatu
Antolatu
Arauak ipini
Eskatu
Zaindu







EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# JOLAS ARAUAK 1







## BIZIKIDETZAREN SAREA OSATU

- **Azpian dagoen fitxa bat aukeratu (klikatu) eta karratu itzalean itsatsi (klikatu).**
- **Jolasaren lehenengo fitxak irudi bat, egoera bat, izan behar du. Ez badago halako fitxarik, botoi gorrian sakatu txanda hurrengoari pasatzeko.**
- **Fitxak bukatzen direnean, osatutako sarea balioztatu behar da.**
- **Zuzena bada, irakasleak botoi berdea sakatuko du. Jolasaren laburpena hasiko da.**
- **Sarea okerra bada, irakasleak botoi gorria sakatuko du. Jokalariek fitxa sare berria osatu beharko dute.**

* Online jolasaren hasierako tutorialean zehatz-mehatz azalduta

## Adibidea




Nahiko! 1-2 6.UD
6.UD – BESTE PERTSONAK
GAKOA
0
Jokoa amaitu da. LABURPENA bete ezazu.
Iritzia eman
Partekatu
Antolatu

# IKASLEEN KOADERNOA

## Landutako ipuin eta jolasei buruzko ariketak


BIZIKIDETZA, BERDINTASUNEZ ELKARREKIN BIZI

6 UNITATE DIDAKTIKOA

IZENA:

IKASLEAREN KOADERNOA 6

1 NESKAK ETA MUTILA, BERDINAK?

1 Hona hemen elkarrekin berdintasunez bizitzeko beharrezkoak diren hainbat ekintza. Gure gizartean, orokorrean, mutilek gehienbat horietako ekarpen batzuk egiten dituzte eta beste batzuk ez. Eta neskek berdin. Lotu neska taldearekin gure gizartean gehienbat neskek egiten dituztenak eta mutil taldearekin gehienbat mutilek egiten dituztenak.



► Helburu ezberdinak dira? Zergatik? Beste era batera izan daiteke? Nola?




2 Idatzi hitz bakoitza dagokion irudiaren azpian: ANTOLATU, PROPOSATU, TXANDATU, JOLASTU, ADOSTU, PARTEKATU.




3 Kokatu gurutzegraman bai mutilek eta bai neskek taldean berdintasunez elkarrekin bizitzeko egin behar dituen ekintza hauek: ELKARBANATU, ITXARON, AGURTU, EZTABAIDATU, ERABAKI.



4 Erdiko laukian unitate honen helburua duzu. Inguruan, hainbat ekintza eta jarrera. Erdiko helburua lortzeko balio dituzten ekintzak berdez margotu eta gezi baten bidez helburuarekin lotu. Helburua lortzeko balio ez duten ekintzak gorriz margotu.






2 NIK AHAL DUT, NIK EGIN DEZAKET

1 Hona hemen elkarbizitzaren hiru esparru adierazten dituzten hiru irudi: egin behar den lana, hartu behar diren erabakiak eta adostu behar diren nahi ezberdinak. Idatzi gure gizarteak zer espero duen bakoitzean mutiletaz eta nesketaz. Eta zuk, zer egin nahi duzu?



## HITZ EGIN, HAUSNARTU, BARNERATU, LABURTU:

PDF betegarriak

- Hitzak eta marrazkiak markatu (“X” idatzi...).
- Hitzak marrazkiekin lotu (zenbaki bera idatzi).
- Kantaren esaldien hutsuneetan hitzak idatzi.

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# FAMILIEN KOADERNOA

## Landutako ipuin eta jolasei buruzko ariketak



BIZIDETZA, BERDINTASUNEZ ELKARREKIN BIZI

6 UNITATE DIDAKTIKOA

IZENA:

FAMILIAREN KOADERNOA 6

1 Bete hutsuneak esaldi hauek erabiliz.

banatzeko berdin | egin elkarrekin | guztion etekin | elkarbizitza egin

Neskek eta mutilek

arazoak konpondu

bai lana ta bai festa

berdintasun bidea

2 Erakutsi etxekoei kanta.



BIZIKIDETZA BERDINTASUNEZ 6. UNITATE DIDAKTIKOA FAMILIAREN KOADERNOA

3 Zenbakitu marrazkiak ipuinaren ordenaren arabera.

1

4 Irudiak jarraituz, kontatu ipuina etxekoei.



BIZIKIDETZA BERDINTASUNEZ 6. UNITATE DIDAKTIKOA FAMILIAREN KOADERNOA

5 Idatzi lauki berde bakoitzean hauetako hitz bat, ondoan dituen irudiei dagokiena. Hau da, "ENTZUN" adibidean bezala, aldameneko irudietan agertzen diren egoeretan berdintasunez elkarrekin bizitzeko beharrezkoa denean: **PROPOSATU, GALDETU, ERRESPETATU, ERABAKI, ELKARBANATU, ANTOLATU, ELKARREKIN LAN EGIN.**

ENTZUN



BIZIKIDETZA BERDINTASUNEZ 6. UNITATE DIDAKTIKOA FAMILIAREN KOADERNOA

6 Ziur familian elkarbizitza garai bikain bat gogoratzen duzuela. Gogoratu nolakoa izan zen, hausnartu eta erantzun galdera hauek.

| | |
|---|---|
| Familian bizi izan dugun elkarbizitza garai on bat | |
| Zergatik nabaritzen zenuten elkarbizitza ona zela? | |
| Zer egin genuen horrela izateko? | |

Gogoratu

- Neskek eta mutilek egunez egun, urratsez urrats, eraikitzen dugu gure elkarbizitza.
- Berdintasunez elkarrekin bizi elkar ondo tratatu, errespetatu eta zaintzea da.
- Berdintasunez elkarbizitzeak neska izateagatik edo mutila izateagatik inor ez gutxiestea eskatzen du.
- Berdintasunez elkarrekin bizitzeak, sexuaren araberako semaforo gorririk gabe pertsona bakoitzaren gustuak, nahiak, interesak, trebetasunak... kontuan hartzea eskatzen du.

**PDF betegarriak**

## HITZ EGIN, HAUSNARTU, ADOSTU:

- **Testuaren esaldien hutsuneetan hitzak idatzi.**
- **Ipuinaren marrazkiak zenbakitu. Ipuina kontatu. Kanta erakutsi.**
- **Hitzak eta marrazkiak markatu ("X" idatzi, zenbaki bera jarri…).**

# FAMILIEN KOADERNOAREN ERABILERA

NAHIKO! 1-2
EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO





## PAUSOAK:

1. Familiei Nahiko! aurkezteko bileran koadernoak eta beren erabilera azaldu.
2. Eskolan landu ondoren, familiei koadernoak bidali: USBan, e-mailez, eskolako web-ean ala plataforman zintzilikatu, inprimatuta banatu…
3. Koadernoa erabili etxean elkarrekin hitz egin, partekatu eta hausnartzeko.

## GARRANTZITSUA: TOPAGUNEA DA ETA EZ “EGINBEHARRA”

→ Eskolako lanetaz hitz egiteko eta hausnartzeko aukera.
→ Elkar ezagutzeko eta harremanak sendotzeko aukera.
→ Esperientziak, sentimenduak, balioak, erabakiak… BIZITZA partekatzeko aukera.

→ Ez dira erantzun bakarra eta egiteko modu bakarra duten ariketak.
→ Ez da beharrezkoa dena idaztea, dena erantzutea eskolara bidaltzeko.
→ Helburua, familian erabiltzea da, eskolaren laguntza eta jarraipenarekin.

# ONLINE MATERIALA ERABILTZEKO INFORMAZIO GEHIAGO

## “ONLINE JARRAIBIDEAK” pdf-a

- Irakasleak materiala eta jolasak ezagutzeko pausoak.
- Ikasleek materiala eta jolasak ezagutzeko pausoak.
- Jolasak erabiltzeko pausoak.
- Hausnarketa: jolasaren laburpena eta koadernoak nola erabili.
- Online jolasteko ohar teknikoak.
- Irakaslea eta ikasleak online jolasetan alta emateko pausoak.
- Nabigatzailean leiho independienteak nola sortu.


NAHIKO! PROGRAMA JARRAIBIDEAK

E. ERANSKINA: INTERNETEN BIDEZ ONLINE JOLASTEKO JOLASAK
E2. IRAKASLEA ETA IKASLEAK ALTA EMATEKO PAUSUAK

16. JOLASTEKO ERA AUKERATU
Ikasleen adina eta kopurua, ordenagailu kopurua edo jolasarekin aritzen diren zenbatgarren aldia den kontuan harturik, **jolasteko era moldatu daiteke** (ikus 6.atala, 5.orrialdean):
a) Arbela digitala edo proiektorearekin. Ahal bada, 2 ordenagailurekin. Bakarra badago, garrantzitsua: leiho independienteak zabaldu behar dira (ikus E3 eranskina).
b) Taldeka ordenagailu bakoitzean. Binaka, adibidez.
c) Banaka ordenagailu bakoitzean.
d) Jolas talde eta partida ugari. Halakoetan, lehenengo talde bat osatu eta jolasten hasi. Ondoren, 2.taldea sortu eta jolasten hasi. Segi horrela, behar adina talde sortuz.

OHARRA: Jolasak, gehienez 12/14 jokalari jolasteko prestatuta daude. Hau da, pantailan aurpegitxo baten bidez 12/14 jokalari jaso eta bere txanda noiz den adierazteko.

17. IRAKASLE ETA IKASLEAK ALTA EMATEKO PAUSOAK
1- **Hizkuntza** jokalari bakoitzak aukera dezake, eta jokaldi berean batzuk hizkuntza batean eta besteak beste batean aritzeko aukera ematen du.

2- Jolas bakoitzean **orden honetan** eman behar dira altan irakaslea eta ikasleak. Kontuan izan ezin direla espazioak erabili, soilik hizkiak eta zenbakiak onartzen ditu.

3- **Irakaslearen alta** datu hauek betez egiten da:

Kontuan izan guztiek berdin-berdin idatzi beharko duzuela ikastetxearen izena.

10

NON DAGO MATERIALA?
http://www.emakunde.euskadi.eus/nahikoeu/-/inf

- **Sarrera librea**
Nahiko! programako material eta jolas guztiak Emaku... inolako pasahitzik gabe erabiltzeko.
- **Zikloka antolatuta dago informazioa**
LHko lehenengo zikloa, bigarren zikloa eta hirugarre...
- **Ziklo bakoitzean 6 Unitate Didaktiko**
Unitate Didaktiko baten adibidea.

1 UD: Gorputza. Berdintasunez Hazi.

Irakasleen gida (PDF)
Ikasleen koadernoa (PDF)
Familiaren koadernoa (PDF)
Abestia (ZIP, 4.1 MB)

Ipuina:
Luze eta Txiki (PDF)
Luze eta Txiki (AVI, 30 MB)
Luze eta Txiki (WMV, 22 MB)

Jolasa: Gorputzaren altxorra. Konektibitatea baieztatu
ONLINE BERTSIOA
Deskargatzeko bertsioa: Karta-sorta 1 (PDF) | Karta-sorta 2 (PDF) | Karta-sorta 3 (PDF) | Karta-sorta 4 (PDF)

1

NAHIKO

EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA

Organismo Autónomo del

GOBIERNO VASCO